

ENPLEGUA - LAN-KONTRATUAK

Praktikaldiko kontratua

2020KO APIRILA

Hartzaileak

Honako hauek dituztenak:

- Unibertsitateko titulua edo maila ertaineko edo goi mailako lanbide-heziketako tituluak edo ofizialki baliokide jotzen direnak, indarrean dauden hezkuntza-sistemaren lege arautzaileekin bat,
- Jarduera profesionala buruzteko gaitasuna ematen duen profesionaltasun-ziurtagiria, Gaitasunen eta Lanbide Hezkuntzaren ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, betiere ez bada iragaritako urte baino gehiago, edo zazpi urte baino gehiago kontratua desgaitasunaren bat duen langilearentzako denean, ikasketak amaitu zirenetik.

Enpresarentzako abantailak

- Desgaitasunaren bat duten langileekin praktikaldiko kontratuak sinatzen dituzten enpresek gertakizun arruntengatik Gizarte Segurantzako enpresa-kuota % 50ean murrizteko eskubidea izango dute, kontratua indarrean dagoen bitartean.
- Praktikaldiko kontratua duten, eta enpresa erabiltzaileen eskura dauden langileen kasuan, enpresek Gizarte Segurantzaren enpresa-kuotetan urtean 500 euroko hoberia jaso ahal izango dute, hiru urtez, langile horiekin, etenaldi gabe, lan-kontratu mugagabea sinatzen badute 3/2012 Legearen 7. artikularen 2. atalean zehazten diren baldintza eta hoberi berdinekin. Kontratua emakume batekin sinatuta bada, hoberia 700 eurokoa izango da urtean.

Iraupena

Ezin izango da sei hilabetetik beherakoa izan, ezta bi urtetik gorakoa ere. Muga horien barruan, esparru sektorialeko Hitzarmen Kolektiboek kontratuaren iraupena zehaztu ahal izango dute.

Praktikaldiko kontratua bi urtetik beherako aldi baterako hitzartu bada, bi luzapen hitzartu ahal izango dira, gutxienez sei hilabeteko iraupenarekin.

Langileetako inork ezin izango du praktikaldiko kontratuarekin jardun bi urtetik gorako aldi batez eginkizun berean edo desberdinetan titulazio berari jarraiki.

Probaldia enpresan

Probaldia ez da honako epe hauek baino luzeagoa izango:

- Erdi-mailako titulua, edo 1. edo 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiria duten langileekin egindako praktikaldiko kontratuetarako, hilabete bat.
- Goi-mailako titulua, edo 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiria duten langileekin egindako praktikaldiko kontratuetarako, bi hilabete, hitzarmen kolektiboan agertzen dena izan ezik.

Kontratua amaitutakoan ezin izango da beste probaldi-

rik jarri, eta praktikaldiaren iraupena kontuan hartuko da enpresako antzinasunerako.

Ordainsaria

Ordainsaria hitzarmen kolektiboan finkatutakoa izango da. Ezin izango da lanpostu bera edo baliokidea betetzen duen langile batentzat hitzarmenean finkatutako soldataren % 60tik edo % 75etik beherakoa izan kontratuaren indarraldiko lehenengo edo bigarren urteetan, hurrenez hurren.

Soldata ez da inolaz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik egongo.

Lanaldi partzialean kontratatutako langileen kasuan, ezarritako lanegunaren arabera murriztuko da soldata.

Kontratua formalizatu

Idatziz, langilearen titulua, kontratuaren iraupena, eta praktikaldian zehar beteko den lanpostua zehaztuz, kontratua hitzartu ondorengo hamar eguneko epean Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinarazi beharko zaio, eta era berean jakinarazi beharko zaio haren luzapenak egiten direnean.

Ziurtagiria

Kontratua amaitutakoan, enpresariak praktikaldiaren iraupena, betetako lanpostua edo lanpostuak eta horietan egindako zeregin nagusiak adierazten dituen ziurtagiri bat eman beharko dio langileari.

Praktikaldiko kontratua aldatu

Kontratua lanaldi osoko edo lanaldi partzialeko kontratu mugagabea bihurtuz gero, Gizarte Segurantzaren enpresa-kuotan urtean 500 euroko hoberia jaso ahal izango da, hiru urtez.

Emakumeen kasuan, urtean 700 eurokoa izango da.

Desgaitasunaren bat duten langileen kasuan, posiblekin lortzeko aukera egongo da, urtarrilaren 30eko 170/2004 EDak aldatzen duen maiatzaren 11ko 1451/1983 EDan ezarritakoak.

Erreferentziazko araudia

- 2/2015 Legegintzako - Errege Dekretuaren, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, 11.1. artikulua.
- 488/98 ED, martxoaren 27koa, prestakuntza-kontratuei buruzko Langileen Estatutuko 11. artikulua garatzen duena.
- 3/2012 Legea, uztailaren 6koa, lan-merkatua aldatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- 16/2013 Errege Dekretu Legea, abenduaren 20koa, kontratazio egonkorraren eta langileen enplegagarritasunaren alde egiteko neurriei buruzkoa.
- 2/2015 Legegintzako - Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuen Legearen testu bategi-

na onartzen duena. Hogeigarren xedapen gehigarria.



Informazio gehiago:

ESTATUKO ENPLEGU
ZERBITZU PUBLIKOA

SERVICIO PÚBLICO
DE EMPLEO ESTATAL

SEPE

Aurki gaitzazu hemen:



www.sepe.es

Jarrai gaitzazu:

